

LIZASO EIZMENDI FELIPE

1908-1999

Koherentzia baten historia



Aurtengo urtarrilan, 90 urterekin, hil zen Felipe Lizaso Eizmendi. Nere bizitzaren oroimenetan, Errenteriako gertakari nagusiekin eta urteko jai garrantzitsuenekin loturik doa beti bere presentzia. Inoiz ez zen faltako Madalen jai egunean eta beste hainbatetan; azken urteetan Errenterian bizi ez bazen ere, goitik behera errenteriar egina baikeuen Orion jaiotako gizona. Gaur Oarso urtekariaren orrialde hauetara bere irudia ekarri nahi nuke, omen gisa eta esker onaren seinale.

Orion jaio zen, 1908ko apirilaren 30 ean, zazpi anai-arreben familia batean. Zazpi urte dituela, familia osoa Errenteriara aldatzen da, aita Florentino Loidik gure herrian zuen altzari fabrikari lanean hasten denean. Donostiatik etorrita Errenterian sartzean, Biteri kalearen haseran aurkitzen zen tailerra, Otegitarren modelistegiaren ondoan, eta bertan jarri zen familia bizitzen. Lantokiaren gainean, lehen solairuan zegoen etxebizitzan hain zuzen.

Aitaren aldetik, bazetorkion euskarakirikiko zaletasuna. Aita, txistu egilea izateaz gain, bertsogilea zen eta, Liltargi-ren izenpean, bertso asko ditu idatziak eta argitara emanak.

Deigarria gertatzen da gaztetandik lanerako duen gogoia eta gaitasuna,

Joxan Arbelaiz

bere garaikideen testigantzari jaramon egitekotan. Errenteriako Batzokian, bereziki, bere iharduera nekazezina da. Euskarazko klaseak ematen ditu eta ikasleen artean bere lagun min Koldo Mitxelena aurkitzen da. Honek, lotsarik gabe, aitortuko du beti Feliperekiko zorra, batez ere aditzaren berri sistematizatua hain egoki eman ziolako.

Batzokiko antzerki taldearen arduraren hartua du, bestetik, eta arduraren erabatekoa da, alor guztietara hedatzen dena. Bera baino gazteago izanagatik, ondo gogoan du Xabier Olaskoagak Feliperen nondik norakoa eta testigantza preziatua eskeintzen digu: *..“Denetik egiten zuen. Zuzendari, antzesle, efektu bereziak antolatuta, dekoratuak margotu, makilatu... Langile eta trebea zen. Bere zuzendaritzapean obra asko antzeztu ziren. Gogoan ditut “Abaroa eta babes”, “Oleskari Zarra” zenbat musiko eta Tomas Garbizuren pianoren laguntzarekin. Bertan, Felipek pertsonaia protagonista antzeztzen zuen, bere bari-
tono ahots ederrarekin.*

Burgoseko espetxea. 1939. Mantal zuria duen erizainaren eskubitan, Felipe Lizaso. Bere ezkerretan, Koldo Mitxelena.





1936ko urriaren 30etik abenduaren 2ra bitartean Legutioko erasoan hildako "Itxarkundia" batailoiko gudarien omenez egindako hilarria desestaltzen.

Euskal ejerzitoan komandantea izateaz gain, Feliperen erantzukizuna benetan nabarmena izango da, Jeltzaleen ordezkaria izango baita Euskal Ejerzitoaren Auzitegi Militarrean.

Italiarrekin izenpeturiko Santonako Itunean, Eusko Alderdi Jeltzalearen aldetik sinatzaileetarikoa bat dugu Felipe Lizaso komandantea. Italiarrek ez zuten ituna bete eta, gerra galdurik, espexzaratua

izan zen eta heriotz zigorra jaso 1.937. urtean, beste hainbat herrikide eta aberkide bezala.

Heriotz zigor hori ekidin nahiean, garaian herriko alkatea zen Carmelo Rekaldek telegrama hau zuzendu zion "Generalísimoaren Idazkari Nagusiari", Udal artxiboan E sailean, 5. Negoziatuan, 11. Liburuan eta 24. Espedientean irakur daitekeen bezala. Honela dio telegramak, hitzez hitz: "Ruégole eleve su Excelencia súplica reverente ejercite su soberana prerrogativa gracia indulto Manuel Añón, Felipe Lizaso, Eugenio Errazquin, Luis Michelena, Luis Sansinenea y Juan Polo, condenados a muerte por tribunales Militares y actualmente reclusos en la cárcel Larrinaga de Bilbao. Salúdole."

Kartzelan dagoela, eta José Mari Azkarragaren bitartez, ixilpeko aldizkaria ateratzeko agindua ematen dio Juan Ajuriagerrak. Leialki lotzen zaio aginduari eta "Espe-txean" izeneko aldizkari klandestinoa sortuko du. Bertan hasiko da "Hitz Gurutzatuak" argitaratzen eta lan honi jarraituko

Felipe Lizaso, ezkerretan, Intxorta mendiko batailaren oroipenean.



Baina idatzi ere, idatzi zuen. "Itzalpean sendotasuna" izeneko antzezlan taldearentzat idatzi zuen eta Errenterian eman zuten estrainekoz.

Antzezlan hauetan, eszenatokiaren alde bitan, eta goitik behera idatzirik, bere pentsaeraren adierazpen nabariak ziren bi esapide hauek irakur zitezkeen: "Euzkotarra, Euzkadi zure aberria da. Biotzez maita ezazu" ezkerraldean; eta eskubi aldean, "Euzkotarra zure izkuntza euskara da. Beti onela mintzo".

Guri, garai hartan, arrotza gertatzen zitzaizkigun "mintzo" eta horrelako esamoldeak. Euskara oso landua zuen."...

Batzokian daraman aktibitateaz gain, aparejadore ikasketak burutzen ditu eta, Maria de Lezo kalean aurkitzen den Enrike Imazen aroztegian lanean hasiko zaigu, "El Día", "Euzkadi" egunkarietan eta "Argia" astekarian kirol kronikak argitaratzen dituen bitartean. Bi deituren eta izenaren bi lehen hizkiak elkartzuz "Lieizpe" izenordea lortu zuen eta horrela izenpetzen zituen bere lanak, nahiz eta "Muskilari" izenordea ere erabiltzen zuen.

Baina gerra aurretiko bere iharduera garrantzitsua eta ugaria bada ere, gerraren sorrerarekin Feliperen zeregina handiagoa eta nabarmenagoa bilakatuko da.

Guda hasten denean, bolondres bezala alistatzen da euskal ejerzitoan eta Cándido Sasetak Itxarkundia gudarostearen komandantea izendatzen du. Gudaroste horretan errenteriar eta lagun ugari dira bere agindupean gerra egindakoak, Feliperen aita eta bi anaia tarteko.

Alejandro anaia Itxarkundia gudarosteko Oarso konpainiaren kapitaina da eta ospe handia du. Gerra aurretik, Periko Lizardi, Eugenio Errazkin eta Evaristo Goñirekin Errenteriako txistularien banda ezaguna osatzen zuen. Eta Mexikotik egin zuen bira artistiko baten ondoren, Eusko Jaurlaritzak Europan barrena beste bat egitea proposatu zion, euskaldunekiko atxekimenduak lortzeko asmoz. Baina, bere lekua frontean zuela aldarrikatuz, ezetzkoa eman zion proposamenari. Buruan jasotako bala batek hiluen hain ezaguna zaigun "Eusko Gudariak" abestiaren sortzaile genuen Alejandro Lizaso.



Ardanza Lehendakariaren eskubitan, omenaldi batean.

dio kartzelatik atera ondoren, azkeneko momenturarte. Milaka dira, eta doanik, eukal aldizkarietarako egindako mota horretako lanak, "Zeruko Argia" eta "Deia" rako bereziki. Bere kazetari lan honengatik, Andoaingo Udalak omendu zuen "Rikardo Arregi" saria banatzeko ekitaldian, 1.997 urtean.

Dakusagunez, euskarekiko zerbitzua eta abertzaletasuna izan dira Felipe Lizasoren izaeraren ardatz nagusiak. Bere heriotzaren biaramonean, Deiaren artikuluan, Mikel Atxagak konpromezu hauen islada egiten digu: "*Felipe Lizaso euskaraz bizi zen: gutunak, alderdiko txostenak, ebazpenak, bilerak, dena euskaraz egiten zuen.*"

Buruzagiren bat hasten bazen erdaraz "Felipe Lizasoren baimenarekin", laster erantzungo zion," ez duzu Feliperen baimenik".

Baina euskara ez zen Feliperentzat gordeleku bat, ihespide bat. Eta demokrazia, askatasuna eta Euskadi aldeztu behar zirenean ere aitzakirik gabe hartu zituen armak. Itxarkundia gudarosteko komandante erantzukizunari ere ez zion ukorik egin"

Kartzelatik irtendakoan, María Dolores Lamsfusekin ezkondu zen eta 5 seme-alaben familia osatu zuten, 3 gizonezko eta 2 emakumezko. Baina ez zuen Euskal Herrira itzultzeko aukerarik izan eta Burgosko atzerrian bizitzera beharturik aurkitu zen. Eta bertan, bere aparejadore formazioz baliaturik Burgos eta Madrilen eraikuntza lanak aurrera eramanez, bizimodua egin zuen.

Atzerrian bizibehar horrek ez zuen, dena den, bere ideia-letatik urrundu eta jarraitu zuen bere kolaborazioa bidaltzen eta euskal aldizkarietan argitaratzen. OARSO, Errenteriako urtekariak ere izan zuen bere kolaborazioa eta 8 urtez bere artikuluen ixuria izan genuen, 1.971 eta 1.983. urteen artean, denak euskaraz, "Leiz" izenordearekin. Artikulu horietako bi titulak anai Alejandroren oroimena dakarkigute: "Eusko Gudariak gara" eta "Errenteriako Txistulariak". Baina, bere idazlanak ez dira artikulua eta kolaborazio horietara mugatzen, Arrain Hiztegia ere burutzen duelarik.

Euskadira itzultzean, bere partidurekin duen konpromezu politikoa eta bere zentzu ona direla medio, Gipuzkoako Hauzitegi Erregionaleko lehendakaria izendatzen dute lehenengoz eta Auzitegi Nazionaleko lehendakaria, gero, 1.981. urtean.

Alderdia bitan banatu zenean, une garratzak bizi behar izan zituzten lehen, eta bizitza guztian, lagunak izandakoa alde bitan banandurik aurkitzean. Eta bizipen hori bereziki bortitza izan zen Errenterian. Dena den, une horietan, beste aukera egindakoek ere begirune berezi bat gorde izan zioten Felipe Lizaso komandanteari.

Begirune berberaz ekarri dizuet orrialde hauetara Felipe Lizasoren biografia, koherentzia eta leialtasun baten historia.